



**Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna**  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco



**GIZONDUZ EKIMENA**  
2012<sup>AN</sup> EGINDAKOAREN  
MEMORIA



# AURKIBIDEA

## 1 SARRERA

## 2 2012AN EGINDAKO JARDUERAK

### 2.1 WEBGUNEA

### 2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

### 2.3 BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK

### 2.4 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA

### 2.5 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUEREN HEDAPENA

### 2.6 ARGITALPEN DIGITALAK

### 2.7 AHOLKULARITZA

# 1 SARRERA

Gizonduz Eusko Jauriaritzaren ekimen aitzindaria da, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak sustatua, eta helburu du gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatzea, eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzea.

Helburuak helbide honetan zehazten dira: Gizonduz ekimenaren eratze-dokumentuan. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde konprometitutako eta sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna areagotzea.

Hasiera batean Gizonduz ekimenaren iraupena 2007ko azarotik 2009ko abendura artekoa izatea planteatu zen arren, bi urte horietan izandako balioespena ona izan denez, Gizonduz ekimenaren jarraitzea erabaki zuen Emakundek.

Gizonduz ekimenaren barruan 2007tik 2011ra bitartean egindako jarduerak dokumentu hauetan daude jasota: **Txostena. Gizonduz ekimenaren jarduera-memoria. 2007-2010 epealdia** eta **2011n egindakoaren memoria. Gizonduz ekimena**.

## 2 2012AN EGINDAKO JARDUERAK

### 2.1 WEBGUNEA

2008ko apirilean, berdintasunaren aldeko gizonen buruzko webgune espezializatua sortu genuen ([www.euskadi.net/gizonduz](http://www.euskadi.net/gizonduz)), eta hori kudeatzen jarraitu genuen 2012an. Webgunean, ekimenari buruzko informazio ugari aurki daiteke, hainbat euskarritan, bai eta atal hauek ere: elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak, webgune interesgarrietarako loturak, Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra gutunari atxikitzeko eremua, eta abar.

2011. urtean, Gizonduz ekimenaren webguneak 13.977 bisita jaso zituen; 2012an, berriz, 17.552 bisita, guztira 35.400 orrialde kontsultatzeko. Bisita horietatik 11.061 aurrenekoz egindakoak izan ziren, eksklusiboak, eta % 61, webgunea aurrez bisitatu zutenek berriro egindakoak.

Bisiten % 86 Espainia barruan egin ziren; gainerakoak, berriz, herrialde hauetan: Mexiko (% 2,7), Venezuela (% 1,4), Kolonbia (% 1,2), Peru (% 1), Ekuador (% 0,7), Txile (% 0,8), Argentina (% 0,8), Guatemala (% 0,7), Erresuma Batua (% 0,6), Frantzia (% 0,7) eta Ameriketako Estatu Batuak (% 0,5). Estatistika-txostenen arabera, webguneak bost kontinenteetatik jaso ditu bisitak.

Espainiako Estatuko bisitak: % 25,5 Bilbotik egin ziren, % 9,5 Madrilatik, % 7 Donostiatik, % 6,3 Gasteiztik, % 2 Bartzelonatik eta % 1,8 Iruñetik.

Erabiltzaileek webgunea bisitatzeko hautatutako hizkuntza: % 90ek gaztelaniazko bertsioa erabili zuen, % 3k euskarazkoa eta % 1,7k ingelesezkoa.

### 2.1.1 Bloga

Gizonduz ekimenaren blogean, eztabaidak, albisteak eta informazioa proposatzen dira. Herritarrek ere parte har dezakete, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitateekin lotutako gaiei buruzko iritziak, gogoetak eta iruzkinak aditzera emanez.

2012ko urtariletik abendura bitartean, 130 sarrera igo ziren, kategoria hauen arabera sailkatuta: erakunde-ekimenak, indarkeria maskulinoak, emakumeen aurkako indarkeria, gizon taldeak eta gizonen jarrera berdintasunaren aurrean. Gizonduz ekimenaren bloga 2008ko uztailean abiarazi genuenetik, 600 sarrera baino gehiago igo dira.



### 2.1.2 Elkarrizketak

Atal horretan, berdintasunarekin zerikusia duten pertsonen egindako elkarrizketak biltzen ditugu. 2012an, ondoko hauek elkarrizketatu genituen:

- Encarna de la Maza González, SATSE sindikatuko antolamendu-idazkaria Euskadin.
- Iñigo Lamarca, Arartekoa.
- Loli García, Eusko Jaurlaritzako Familia eta Komunitate Politikako zuzendaria.
- Julio César González Pagés, Maskulinitateen Sare Iberoamerikarraren koordinatzailea.
- Graciela Hernández Morales, soziologoa eta hezitzailea. 2012ko abenduan, Emakunderen Nahiko programaren VI. mintegian parte hartu zuen, “La voluntad de decidir, elegir y crear la propia vida” hitzaldia emanez.

- Raewyn Connell, Sydneyko Unibertsitateko irakaslea eta Gizarte Zientzien Australiako Akademiako kidea. Maskulinitatearen teorizazioan eta gizarte-erakuntzan espezialista entzutetsua.

### 2.1.3 Sare sozialak

2011n, Facebook-en Gizonduzen erakunde-orria sortu genuen, lehendik zeukan profiletik edukiak migratzeko prozesua gauzatu ostean. Era berean, hala webgune hori nola Gizonduzek Youtube-n eta Vimeo-n dituen profilak aldizka administratu eta eguneratu genituen.

Gizonduzen Facebook-eko profilak batez beste 4.784 lagun izan zituen 2012an. 178 argitalpen sartu genituen, eta haietako bakoitzak 600 bisita inguru jaso zituen.

## 2.2 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO PROGRAMA

2009ko martxoan, Gizonduzen prestakuntza- eta sentsibilizazio-programaren lehenengo edizioa jarri genuen abian. 2009an eta 2010ean 3.116 lagunek parte hartu zuten antolatutako 140 ikastaro baino gehiagotan (1.665 gizonezkoak eta 1.451 emakumezkoak).

2011n, programaren hirugarren edizioan, guztira 76 ikastaro eman genituen: aurrez aurreko 74 eta Internet bidezko 2 (60 eta 8 ordukoak). Orotara, 1.650 lagunek parte hartu zuten: 919 gizonezkoak (% 55,6) eta 731 emakumezkoak (% 44,4).

2012an, programaren laugarren edizioan, 79 ikastaro antolatu genituen: aurrez aurreko 77 eta Internet bidezko 2 (60 eta 8 ordukoak). Orotara, 1.699 lagunek parte hartu zuten: 811 gizonezkoak (% 47,7) eta 898 emakumezkoak (% 52,3).

Gizonduzen prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa abian jarri zenetik, ikastaroetan 6.475 lagun izan dira guztira: 3.395 gizon (% 52,4) eta 3.080 emakume (% 47,6), hain zuzen.

### 2.2.1 Aurrez aurreko ikastaroak

Prestakuntza- eta sentsibilizazio-programaren 2009ko eta 2010eko edizioetan, aurrez aurreko 138 ikastaro eman genituen, guztira 711 ordukoak; orotara, 2.548 lagunek parte hartu zuten: 1.407 gizonezkoak (% 55) eta 1.141 emakumezkoak (% 45).

2011n, 74 ikastaro eman genituen; orotara, 293 prestakuntza-ordu. Aurrez aurreko ikastarootan, 1.459 lagunek parte hartu zuten: 821 gizonezkoak izan ziren (% 56) eta 638, emakumezkoak (% 44). Ikasleen % 48,6k bi orduko ikastaroak aukeratu zituen, % 10ek hiru ordukoak, % 34,5ek lau eta hamar ordu bitartekoak, eta % 6,8k hamar ordutik gorakoak. 2011rako programatutako aurrez aurreko lau ikastaroetatik<sup>1</sup> bakarria egin zen azkenean –hamar ordukoa, Emakunderen egoitzan, Gasteizen–; gainerakoe-tan, ez zen behar beste jende matrikulatu.

2012an, aurrez aurreko 77 ikastaro eman genituen, guztira. Guztiak, bat izan ezik, «nahierara»<sup>2</sup> modalitatean. Gizonei, berdintasunari eta maskulinitateei buruz programatutako lau ikastaroetatik hiru bertan behera utzi behar izan genituen, partaide nahikoa ez izateagatik.

<sup>1</sup> Ikastaro programatuak oinarritzko alderdiak alde zuzenetik finkatuta dituztenak dira: edukiak, ezaugarriak, egutegia, lekua eta hizkuntza.

<sup>2</sup> Programatu gabeko ikastaroak edo «nahierara» ematen direnak eskaria aintzat hartuta antolatzen dira, bai luzerari eta edukiei dagokienez, bai lekuari eta xede-pertsonei dagokienez ere.

Gizonduzen prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa abian jarri zenetik, 5.452 lagun izan dira aurrez aurreko ikastaroetan: 2.996 gizon (% 55) eta 2.456 emakume (% 45).

## 2012ko AURREZ AURREKO IKASTAROAK

<b>Ikastaro motak, iraupenaren arabera</b>	<b>Ikastaroen iraupena, guztira (ordutan)</b>	<b>Ikasleak, guztira</b>	<b>Ikasleen %</b>	<b>Gizonak</b>	<b>Emakumeak</b>
2 ordukoak	32,5	439	% 30,38	223	216
3 ordukoak	15	211	% 14,60	112	99
4 ordu eta 10 ordu bitartekoak	164,5	506	% 35,02	342	164
10 ordukoak edo gehiagokoak	272	289	% 20,00	91	198
<b>Guztira</b>	<b>484</b>	<b>1445</b>	<b>% 100</b>	<b>768</b>	<b>677</b>

2012an, sendotu egin genuen udalekin, foru-aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin daramagun lankidetzak.

Udalekin batera, 38 ikastaro antolatu ditugu. Nabarmentzeko modukoa da Sestaon, Erreterian, Bergaran eta Berrizen emandako ikastaroak udal-kudeaketan aritzen diren profesionalentzat, kargudun publikoentzat, teknikarientzat, udaltzaintzat eta, oro har, herritarrentzat izan zirela. Ez ziren ekintza isolatuak izan, esku-hartze programa orokor baten zati baizik. Gasteizko Udalaren kasuan, DBHko ikasleentzako programen barruan kokatu ziren guk emandako ikastaroak, hiriko hainbat ikastetxerekin egiten dugun elkarlanaren fruitu.

2012an ikastaroetan emandako 484 orduetatik 276 erakunde publikoek antolatutako edo eskatutako ikastaroek dagozkie.

Horretaz aparte, sindikatu eta enpresekin batera ikastaroak antolatzen jarraitu genuen 2012an. Halaber, GGKEekin lankidetzan aritu ginen ikastaroak antolatzeko, bai barneko langileentzat, bai haien zerbitzuen erabiltzaileentzat.

Bereziki interesgarriak izan ziren Euskal Herriko Unibertsitateko hainbat fakultate eta eskolekin elkarlanean antolatutako ikastaroak; batez ere, 2012-2013 ikasturteko lehenengo lauhilekoan Gasteizko Esperientzia Geletan emandako hautazko ikasgaia.

Ikasleen % 53,14 gizonezkoak izan ziren. Lau ordutik gorako ikastaroetan, gainera, ia bikoiztu egin zuten emakumeen kopurua. Hala ere, hamar orduko edo gehiagoko ikastaroetan, askoz ere gehiago izan ziren emakumeak: 198 emakumezko eta 91 gizonezko. Hala, emakumeak ikasleen % 46,86 izan ziren.

Datu interesgarri gisa, egiaztatu dugu gora egin duela hamar orduko edo gehiagoko prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duten lagunen kopurua: 2011n, ikasleen % 6k parte hartu zuen; 2012an, aldiz, % 20k.

## Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroen koadroa

Erakundea	Edukiak	Xede-biztanleak	Iraupena
Gazteen Euskal Behatokia. Eusko Jaurlaritzza	Maskulinitatea eta berdintasuna	Sektoreko profesionalak	15
Gazteen Euskal Behatokia. Eusko Jaurlaritzza	Gazteak eta teknologia berriak	Sektoreko profesionalak	15
Bizkaiko Saskibaloia Federazioa	Kirola eta berdintasuna	Entrenatzaileak	5
Euskal Trenbide Sarea Eusko Jaurlaritzza	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Tarteko agintariak eta ordezkariak	10
Familiantzako Arretako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzza	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	10
Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila	Gizonak eta berdintasun-harremanak	Foru-aldundiko langileak	10
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak		20
Biltzen, Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Zuzendaritzarekin batera	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Immigranteak	20
Sestaoko Udala	Berdintasuna eta bere eragina politiketan	Politikariak	4,5
Sestaoko Udala	Berdintasun-politikak tokiko administrazioan	Udaleko langile teknikoak	9
Sestaoko Udala	Adineko gizonak eta zaintza: nor bere burua eta gainerakoak zaintzea	Adineko pertsonentzako zentroak	2
Sestaoko Udala	Herritarren inplikazioa berdintasunaren aldeko lanean	Mugimendu asoziatiboa	2
Sestaoko Udala	Berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria eta gizonen kriminalitatea prebenitzea	Udaltzainak	10
Sestaoko Udala	Berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria eta gizonen kriminalitatea prebenitzea	Udaltzainak eta gizarte-langileak	10
Sestaoko Udala	Erantzukizun partekatua, berdintasuneko paternalitatea	Udaleko langileak	5
Santurtziko Udala	Berdintasuneko gurasotasunari buruzko hitzaldia	Herritarrak, orokorrean	2
Erreneriako Udala	Adineko gizonak eta zaintza	Gizon erretiratuak	4
Erreneriako Udala	Maskulinitatea eta berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria eta gizonen indarkeriak	Udaltzaingoa	6
Erreneriako Udala	Maskulinitatea eta berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria eta gizonen indarkeriak	Udaltzaingoa	6
Erreneriako Udala	Maskulinitatea eta berdintasuna, emakumeen aurkako indarkeria eta gizonen indarkeriak	Udaltzaingoa	6

Erakundea	Edukiak	Xede-biztanleak	Iraupena
Errenteriako Udala	Maskulinitatea eta berdintasuna	Langile teknikoak eta politikariak	4
Errenteriako Udala	Maskulinitatea eta berdintasuna	Udaleko langile teknikoak	3
Errenteriako Udala	Oinarrizkoak eta emakumeen aurkako indarkeria	Udaleko langile teknikoak	3
Errenteriako Udala	Maskulinitatea, berdintasuna eta paternalitatea	Udaleko langile teknikoak	4
Bergarako Udala	Maskulinitatea eta berdintasuna	Langile teknikoak eta politikariak	4
Bergarako Udala	Berdintasunezko gurasotasuna	Laguntzaren hartzailleak	4
Arexabaletako Udala	Adineko gizonak eta zaintza	Adineko gizonak	2
Emakunde. Eusko Jaurlaritza	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritar guztiak. Ikastaro programatua	20
<b>GUZTIRA</b>			<b>215,5</b>

### Gasteizko Udalarekin elkarlanean, ikastetxeetan antolatutako aurrez aurreko ikastaroen koadroa

Erakundea	Edukiak	Xede-biztanleak	Iraupena
Gasteizko Udala. Jesus Obrero ikastetxea	Ni maitatzera ausartzen zara?	Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programako 1. mailako ikasleak	8
Gasteizko Udala. Nazareth Ikastetxea	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 1. mailako ikasleak	3
Gasteizko Udala. IPI Sansomendi Ikastetxea	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 1. eta 2. mailako ikasleak	16
Gasteizko Udala. Ikasbidea Ikastola	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 2. mailako ikasleak	16
Gasteizko Udala. Corazonistas Ikastetxea	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 2. mailako ikasleak	6
Gasteizko Udala. Abegi-etxea	Gizonak, berdintasuna eta erantzukizun partekatua	Abegi-etxeako erabiltzaile gazteak	4
Gasteizko Udala. San Prudencio Ikastetxea	Etxean, guztion artean hobe	DBHko 1. mailako ikasleak	8
<b>GUZTIRA</b>			<b>61</b>



## Sindikatu, enpresa eta erakunde politikoekin elkarlanean antolatutako aurrez aurrezko ikastaroen koadroa

Erakundea	Edukiak	Xede-biztanleak	Iraupena
SATSE	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta osasuna	Sindikatu langileak eta kideak	20
SATSE	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta osasuna	Sindikatu langileak eta kideak	20
SATSE	Gizonak, berdintasuna, maskulinitateak eta osasuna	Sindikatu langileak eta kideak	20
ERNE	Maskulinitateak, sexu-jazarpena lanean eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea	Ertzaintza	8
ERNE	Maskulinitateak, sexu-jazarpena lanean eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea	Ertzaintza	8
UAGA	Maskulinitateei buruzko oinarrizko alderdiak	Sindikalistak	5
Alderdi sozialista. Areetako Elkarte Sozialista.	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	PSEko kideak	2
Ezker Anitza	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Herritarrak, orokorrean	2
Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Bertako langileak	6
<b>GUZTIRA</b>			<b>91</b>

## Hezkuntza-entitateekin elkarlanean antolatutako aurrez aurrezko ikastaroen koadroa


Erakundea	Edukiak	Xede-biztanleak	Iraupena
Esperientzia Gelak. EHU	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Ikasleak	30
Gasteizko Lanbide Hastapen Ikastegia	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Irakasleak	12
Bizkaiko Psikologoien Elkargo Ofiziala	Gazteak, teknologia berriak eta berdintasuna	Elkargokideak	15
Lan Harremanen Unibertsitate Eskola. EHU	Maskulinitateak, berdintasuna eta laneko arriskuak	Ikasleak	4,5
Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola. EHU	Emakumeen aurkako indarkeria	Ikasleak	2
Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola. EHU	Generoa eta gizarte-lana. Talde-teknikak	Ikasleak	3
Botikazar BHI	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Ikasleak	2
Botikazar BHI	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Ikasleak	2
Koldo Mitxelena Institutua	Maskulinitateak eta emakumeen aurkako indarkeria	Ikasleak	3
<b>GUZTIRA</b>			<b>73,5</b>

## Erakundeekin eta GKEekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroen koadroa

Erakundea	Edukiak	Xede-biztanleak	Iraupena
Zubietxe	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Atzerriko biztanleak	4
Zubietxe	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Atzerriko biztanleak	4
Zipriztintzen	Maskulinitateak, sexualitatea eta homofobia	Herritar guztiak	4
Prestatutik 4	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Atzerriko biztanleak	4
Prestatutik 3	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Atzerriko biztanleak	4
Prestatutik 2	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Atzerriko biztanleak	4
Prestatutik 1	Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak	Atzerriko biztanleak	4
Euskadiko Elkarbidea	Gizonak, berdintasuna, lankidetzeta eta maskulinitateak	Bertako langileak eta boluntarioak	15
<b>GUZTIRA</b>			<b>43</b>

## Ikasleak 2009-2012

	Gizonak	Emakumeak	GUZTIRA
	2.996	2.456	5.452



## Aurrez aurreko ikastaroen balorazioak

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako partaideek emandako balorazioen batez bestekoak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta.

Ikastaroaren interes-maila, oro har	5,2
Ikasgaiaren inguruan lehendik zenezuzkan ezagutzak	3,7
Edukia	4,8
Hizlaria	5,1
Dinamizazioa	5,1
Taldearen partaidetza	5
Antolamendua	4,9
Eremua	4,8
Erabilitako materialak	4,7
Zure bizitza pertsonalerako baliagarria iruditzen zaizu? (%)	96%
Zure bizitza profesionalerako baliagarria iruditzen zaizu? (%)	92%

Balorazio batzuek ez dituzte alderdi guztien inguruko iritziak adierazi. Nolanahi ere, hauek dira aipagarrienak:

Ikastaroaren alderdi positiboetako dagokienez, aurreko taulan baloratutakoak aipatu dituzte, hala nola partaidetza, hizlaria edo edukiak. Baina, horretaz aparte, erantzunek beste bi alderdi nabarmendu dituzte: ikastaroak errealitatea behatzeko modu berri bat eskaintzen du, eta, horrekin lotuta, errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ezagutzeko bide ematen du. Askotan aipatutako beste iritzi positibo bat hauxe da: ikastaroak lotura du eguneroko alderdiekin. Era berean, ikasleek garrantzia eman diote maskulinitatea lantzeari eta gaion inguruan luze hitz egiteko aukera izateari.

Hobetzeko proposamenen artean, ikastaroari denbora gehiago eskaintzea da gehien aipatutakoa; ez lau orduko ikastaroen kasuan bakarrik, baizik eta luzeagoetan ere bai (sei, bederatzita edo hamar ordukoetan). Horren ostean, ikastaroaren alderdi praktikoa zabaltzearen aldeko iritziak datoz. Partaidetik partaidera, alabaina, esparruak aldatu egiten dira: batzuentzat, emakumeen aurkako indarkeriaren arreta da garrantzitsua; besteentzat, ikasgela; beste batzuentzat, tokiko administrazioa...

Esparruok lotura zuzena daukate ikasleen jarduketara edo lan-esparruarekin. Gairik aipatuena emakumeen aurkako indarkeria da, bai indarkeria horren errealitatea hobeto ezagutzeko, bai indarkeriaren prebentzioa lantzeko. Beste bloke bat hezkuntza eta gazteriarekin lotuta dago; ondoren, berdintasuna lan-munduan, jazarpena, ekintza positiboa... Badira gai gehiago ere: emozioak eta maskulinitatea, amodio erromantikoa, homofobia, aitatasuna, hizkuntza eta komunikazioa, edo osasuna eta berdintasuna.

Laburpen moduan, esan dezakegu partaideek prestakuntzari denbora gehiago eskaintzea eta alderdi praktikoa sakonago lantzea eskatzen dutela. Era berean, aipatu beharra dago Gizonduzen prestakuntza-eskaintzan partaideek sakontasun handiagoz jorratu nahiko lituzketen alderdi guztiak jasotzen direla.

Bestalde, ekimena hedatze aldera, hainbat komunikabidetan izan gara, eta sentsibilizazio-jarduera ugartan parte hartu dugu. Hona hemen aipagarrienak:

- Azaroaren 30ean Emakunden egindako jardunaldia: «Zer egin dezakete erakundeek gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko?».
- Gurasotasun positiboaren inguruko mahai-ingurua, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak azaroaren 6an eta 7an Gasteizen antolatutako «Familia-politikak: gizarte-koheretza lortzeko inbertsioa» kongresuaren barruan.
- «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak» jardunaldiak, EHUko Esperientzia Gelek Gasteizen bioetikari buruz antolatutako zikloaren barruan.
- Dibertsitate funtzionala duten emakume eta neskatilei buruz Zuzenak Fundazioak antolatutako II. jardunaldiak, «Ikusezina hurbilduz» lelopean.
- «Genero-berdintasuna» mahai-ingurua, Arabako Gran Bassa'a elkarte kamerundarrak antolatutako «Immigranteak galdezka» jardunaldien barruan.
- Emakumearen Nazioarteko Egunaren harian Gasteizko Koldo Mitxelena institutuan antolatutako World Kafea, prostituzioaren ingurukoa.

## 2.2.2 Internet bidezko ikastaroak

Gizonduzen prestakuntza- eta sentsibilizazio-ikastaroak Internet bidez ematen hasi ginenetik, guztira 1.023 lagunek parte hartu dute horietan: 399 gizonek (% 39) eta 624 emakumeek (% 61).

60 orduko prestakuntza-ikastaroan, eskaria eta eskaintza pixkanaka handituz joan dira. Zortzi ordukoaren kasuan, berriz, nabarmen jaitsi da eskaria.

### 2.2.2.1 Online sentsibilizazioa

Ikastaro horretan, alderdi ugari lantzen dira: genero-desberdintasunen jatorria, sexua-ren arabaroko rolek eta estereotipoek gizarteratzean duten eragina, eredu maskulinoen berrikuspina, norberaren eta gainerako pertsonen zainketak gizakion bizitzan duen garrantzia, gizonen parte-hartzea etxeko lanetan eta beste pertsona batzuen zainketan, sozializazio sexistak gizonengan eragiten dituen genero-arazoak, indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan duen eragina, eta abar.

Ikastaroak zortzi ordu inguruko iraupena du, eta eguneko edozein orduan egin daiteke. 2009an abiarazi genuen, eta, ordutik hona, 2009ko, 2010eko, 2011ko eta 2012ko edizioetan, 405 lagunek burutu dute: 334 emakumeek eta 142 gizonek.

2012an, 54 lagunek amaitu dute ikastaroa (40 emakumeek eta 14 gizonek). Antzeman daitekeenez, partaideen kopuruak behera egin du; gizonen kasuan, bereziki.

## Ikastaroaren gaineko balorazioa (sei puntutik)

Ikastaroaren interes-maila, oro har	5,1
Ikasgaiari buruzko ezagupenik ba al zenuen lehendik?	4,1
Ikastaroaren elementuak: edukiak	4
Ikastaroaren elementuak: erabilitako materialak	3,6
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza pertsonalerako?	100%
Baliagarria iruditzen zaizu zure bizitza profesionalerako?	100%

Arazo teknikoei dagokienez, pertsona batek bakarrik adierazi du ezin izan dituela materialak deskargatu.

Ikastaroaren hiru alderdi positiboak zehazteko atalean, bi lagunek adierazi dute ikastaro guztia izan dela haien interesekoa.

Hobetzeko proposamenei dagokienez, hainbaten iritziz, zabaldu egin beharko litzateke ikastaroa.

Sakondu beharreko alderdiak, azkenik, ikastaroan lantzen diren guztiak izan beharko liratekeela aipatu dute hainbatek.

### **Ondorioak**

Ikastaroak, oro har, oso balorazio ona jaso du (6 puntutik 5,1); are gehiago, kontuan izanda partaideek gaiaren inguruan ezagutza nahiko zabal zutela alde aurretik (4,1). Ikastaroaren edukiek, halaber, balorazio ona jaso dute (4). Notarik baxuena erabilitako materialei dagokien (3,6).

Azpimarratu beharra dago, partaide guztien iritziz (% 100), ikastaroa baliagarria izan dela euren bizitza pertsonal zein profesionalerako.

2012ko edizioan, nabarmen jaitsi zen partaideen kopurua.

Bestalde, ikastaroa egin dutenen artean, % 26 baino ez dira gizonak izan. Hortaz, eta kontuan hartuta ikastaroa berariaz gizonekoentzat dela, ez dugu sektore horretara iristeko helburua bete.

### **2.2.3 Online prestakuntza**

Internet bidezko lehenengo prestakuntza-ikastaroa 2009ko irailaren 21etik abenduaren 21era bitartean antolatu genuen. Bigarrena hurrengo urtean egin genuen (2010), data berberetan. Eskaria oso handia zenez, 2009an zabaldu egin genuen partaideen kopurua: 60 ikasletik 79ra. Horietatik erdiak baino pixka bat gehiagok amaitu zuten prestakuntza-jarduera.

Ikastaroaren bigarren edizioan, eskariak gora egiten jarraitu zuenez, 138 plaza eskaintzea erabaki genuen. Hala ere, 107 lagun geratu ziren itxarote-zerrendan. Urte horretan, ikastaroa hasi zuten 138 lagunetatik 76k amaitu zuten: 39 emakumezko eta 37 gizona.

2011ko edizioan, izugarri handitu zen eskaria. Guztira 575 lagunek egin zuten aurreinskripzioa, lekua 140rentzat zegoen arren. Horietatik, 413 emakumeak ziren, eta 162 gizonak. Orotara, 140 lagunek hasi zuten ikastaroa (80 gizona eta 60 emakumezko). Amaitu, berriz, 29 emakumezko eta 52 gizona.

2012an, online ikastaroaren laugarren edizioan, aldatu egin genuen plataforma informatikoa. Hobekuntza handia izan zen hori, eta ikasleen parte-hartzea nabarmen areagotu zen: ikastaroan zehar, 1.076 sarrera erregistratu genituen foroan.

Onartutako 210 matrikuletatik, 110 lagunek amaitu zuten ikastaroa (% 52,8). Orain arte izandako lau edizioetan lortutako emaitzarik onena da hori. Esan behar dugu ikastaro horretan itxarote-zerrendan zeuden pertsona guztiek hartu zutela azkenean parte; hori horrela, 181 emakumezko eta 29 gizona hasi zuten ikastaroa, eta horietatik 97 emakumezko (% 53,6) eta 14 gizona (% 48) amaitu.

60 orduko online prestakuntza-ikastaroaren lau edizioetan, 547 lagunek parte hartu zuten guztira: 257 gizonekok (% 47) eta 290 emakumezokok (% 53).

2012ko ikastaroan, halaber, aurrez aurreko saio bat antolatu genuen Daniel Leal González tutorearekin, «Gizonak eta zaintza» izenburupean. 34 pertsona bertaratu ziren, baina 70 ikaslek baino gehiagok Internet bidez ikusi zuten saioa, zuzenean edota Irekia kanaleko grabazioaren bitartez. Jarduera hori sendotu egin da ikastaroaren barruan, eta balorazio bereziki ona jaso du.

Ikasleek ikastaroaren inguruan adierazitako iritziari dagokionez, edukiak, erabilitako materialak eta egindako jarduerak nahiko egokitzat eta oso egokitzat jo zituzten, % 90etik gorako balorazioa emanda. Horrek esan nahi du gogobetetze-maila oso altua izan zela.

### **2.3 BERDINTASUNAREN ALDEKO GIZONEN ELKARTEENTZAKO DIRU LAGUNTZAK**

Era berean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2012ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten duten federazioei edota elkarte mistoei edo gizonen osatutakoei 2012ko ekitaldian diru-laguntzak ematea arautu zen. Horren ondorioz, gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako proiektu hauek jaso zuten laguntza:

- «Gizonak+gizonak: dibulgazioa eta sentsibilizazioa antzezenen bidez». Zipriztintzen, Berdintasunaren Aldeko Gizonen Ermuko Elkartea (1.470,00 €).
- Laudioko gizon taldea sendotzea, prestakuntzaren eta gizarte-ekintzaren bidez, Ongiz Berdintasunaren Aldeko Elkartea (1.410,00 €).
- «Konprimituak» antzerki-forumaren bi antzezen, Berdintasunaren Aldeko Elkartea (1.372,00 €).

### **2.4 «GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0» PROIEKTUA**

EJIE, SA sozietate publikoarekin batera, proiektu bat diseinatu genuen, eta haren alderdi teknikoak zehaztu genituen. Proiektu horren bidez, nerabeak eta gazteak –gizonak bereziki– emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra kontzientziatu eta inplikatu daitezzen sustatu nahi zen, teknologia berrietan oinarritutako hezkuntza-tresna berritzaileak erabilia.

Proiektuak hiru plataforma ditu:

- Webgune informatiboa edo «erakusleihoa»: proiektuari eta parte hartzen duten entitateei buruzko informazioa agertzen da.
- Online abentura grafikoa (bideo-jokoa): erabiltzaileei hainbat jokaleku planteatzen zaizkie, eta proba jakin batzuk gaingitu behar dituzte, egoera sexistei, homofoboei, indarkeriazkoei eta abarrei aurre egiteko.
- Komunitate birtuala, nerabeen arteko komunikazioa sendotuta partaidetzako guneak sortzeko.

### **2.5 PRESTAKUNTZA ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUEREN HEDAPENA**

Aurreko urteetan bezala, 2012an ere hedapena eman genien IVAPek berdintasunarekin lotuta eskaintzen dituen unibertsitateko masterrei, gradu-ondokoei, eta ikasta-

roei, bai eta Berdintasunerako Foroak antolatutako jardueri ere, prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan gizonen partaidetza areagotzeko xedearekin. Buletin elektronikoaz eta Gizonduzen webguneaz baliatu ginen horiei guztiei publizitatea emateko.

## **2.6 ARGITALPEN DIGITALAK**

“2011n egindakoaren memoria. Gizonduz ekimena” dokumentua formatu digitalean argitaratu genuen. Bertan, 2011ko ekitaldian egindako jarduera guztien inguruko xehetasunak jasotzen dira.

Era berean, “Adineko gizonak eta zaintza: nor bere burua eta gainerakoak zaintzea” dokumentu digitala argitaratu genuen; zaintzarekin lotutako adineko gizonen balio eta portaeren inguruko gaietan, arlo pertsonalean eta profesionalean sakondu nahi duten guztientzat da.

## **2.7 AHOLKULARITZA**

Azkenik, 2012an, 258 kontsultari erantzun genien, aurrez aurre nahiz posta elektronikoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuez.

**Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 13a**



Manuel Iradier, 36  
01005 Vitoria-Gasteiz  
**TEL** 945 01 67 00  
**MAIL** [emakunde.gizonduz@ej-gv.es](mailto:emakunde.gizonduz@ej-gv.es)